

28/06/2009

Ormaiztegi. Zumalakarregi Museoa "Ahalegin handia egin behar da jendea museora gerturatzeko"

Mikel Alberdik badaki gero eta zailagoa dela jendea museoetara gerturatzea. Horregatik, bere lankideekin batera, hori alda dadin ari da lanean. Haurrak bakarrik ez, baina gazte eta helduak ere Zumalakarregi museora gerturatzeko ahaleginetan buru belarri dihardu. Karlisten garaiko erakusketa zabaldu bakarrik ez, sarera ere eramán dute. Eta, orain, gainera, herritarrengandik gertuago jarriko dituzte baliabide guztiak.

Makina bat jardunaldi egin dituzue aurten. Zer nolako harrera izan dute?

Gure helburua ospakizun bat egitea izan da, batetik ekintza ugari eginez eta, bestetik, ekintza hauek desberdinak izanez. Egia esan arrakasta handia izan dugu, hasieran uste baino handiagoa. Orain arte museoak zuen dinamikarekin hautsi dugu betiko ardatzei jarraituz baina, aldi berean, aurrerapauso desberdin eta berezi bat emanez. Txango bereziak egin ditugu, haurrentzako jardunaldi ugari antolatu ditugu larunbat arratsaldetan, erakusketak... Eta asmatu egin dugula dirudi. Lehen aldia da honelako gauzak egin ditugula, baina izandako arrakasta ikusita, gehiagotan egitea ere pentsatu beharko genuke.

Gainera, laster estreinatuko duzue erakusketa berezi bat.

Hala da. Loreak asmatzen izango da izenburua eta Euskal Herrian eta batez ere Gipuzkoan loreak aztertzen eta margotzen jardundako bi natur zaleren lanak bilduko ditugu, Bolognako unibertsitatearekin elkarlanean: batetik, Pietro Bubani italiar botanikoaren lana erakutsiko dugu. Bere bizitza osoa Pirinioetako landareak jaso eta aztertzen pasa zuen eta sekulako lana egin zuen, bera hil ondoren kaleratu zena. Bestetik, berriz, Petit de Merville margolariaren gouaches lanak bilduko ditugu. Frantziarra zen bera, Donostian kontsul egondakoa. Landarezale amorratua zen eta margolari bezala egin zen ezagun, lan asko egin baitzuen Gipuzkoako lore eta paisaiak margotzen. Datu historikoen arabera, gainera, esan daiteke bata aztertutako lore guztiak margotu zituela besteak. Beraz, tokiko historiarekin aski lotuta dagoen erakusketa bat izango da. Uztailaren 13an irekiko dugu Donostian eta, ondoren, Bolognara eramango dugu, Italiara. Gainera, landareak eta gastronomia uztartuko dituen ikastarotxo bat ere antolatu dugu, erakusketa honekin lotuta. Beraz, XIX. mendeko Karlismen museoan ardatz horretatik haratago doazen beste gai asko ere landuko ditugu.

Eta, harrigarria bada ere, rock kontzertu bat antolatu duzue Zumalakarregi museoarekin lotuta.

Hala da. Harrigarria dirudi baina egia da. Ez dugu inoiz horrelakorik egin. Oso lotura bitxia bilatu diogu ekimen honi. Argentinatik etorritako rock talde bat izango da, Viticus izenekoa, talde emankor eta indartsua. Haiek jarri ziren gurekin harremanetan, beren abizen bereko museo bat zegoela jakin baitzuten. Abeslariaren izena Nicolas Bereciartua Zumalacarregui da eta bere seme eta bi ilobek harekin batera jotzen dute taldean. Beraz, taula gainean hiru Zumalakarregitar izango ditugu udazkenean Ormaiztegin. Modu honetara, ahalik eta jende gehien gerturatzeko ahaleginean, beste aurrerapauso bat emango dugulakoan gaude. Agian, inoiz gugana etorriko ez zen jendea erakarriko dugu rock kontzertu baten bitartez. Eta, nork daki, museora ere etorriko dira ondoren agian.

Orain arte antolatutako jardunaldiekin hasi zarete nabarmentzen bisitarien igoera?

Ez daukagu oraindik datu horien berri. Oraingoz ez dugu ezer berezirik sumatu, egia esan behar bada. Baina, estatistikak ez ditugu orain artean zuzenean jarraitu. Urte amaieran egin beharko dugu jarraipen zehatzago bat eta, seguruenik, kontaketa bat ere bai. Baina badakigu ahalegin handia egin behar dela jendea honelako leku batetara erakartzeko. Lanean aritu gara gogor orain arte, orain ere hala ari gara eta honelaxe jarraitu beharko dugu.